



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**LESAKA**

**Prozedura exekutiboko egitateen jakinarazpena**

**Erreferentzia: E153000/00008/2018**

Kasu bakoitzean espedientean aipatzen diren arrazoiengatik, ezin izan da egin Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99. artikuluko 2. idatzi-zatian agindutako jakinarazpena. Horregatik, Foru Lege horren 99. artikuluko 4. idatzi-zatiak agintzen duenari jarraikiz, ediktu hau argitara ematen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta dei egiten zaie ondoko interesdunei, bulego kudeatzailerak ager daitezten (Iruñeko Iñigo Arista kalea, 16 - etxabea, astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara), Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epean, berak zuzenean edo behar bezala ordezkatuta, jakinarazpena jasotzeko. Eta aditzera ematen zaie ezen, epe hori betetzen denean agertu ez badira, egintza horiek jakinarazi zaizkiela ulertuko dela, ondorio guztietarako, epea bete eta biharamunetik.

Zegapekoei ohararazten zaie: premiamenduzko prozeduraren edozein tramite jakinarazitzat jotzen denean, ez interesdunak ez haien ordezkariak agertu ez direlako, jakinarazitzat joko dela premiamenduzko prozedurak egiten diren hurrengo jarduketetan eta jardunbideetan, nahiz eta ez duten galduko beste edonoiz agertzeko eskubidea.

Administrazio-egitate horren aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- Berraztertze errekurtso, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Lesaka, 2018ko Maiatzaren 29an.

Diru Bilzale Exekutiboa,



Mikel Arrechea Lasaga.

Izena	Espediente	Jakinarazpen	JM
AGIÑA EGURRAK SL	B71115810	1495422018	CC
ELIZALDE QUINTANA FERMIN	72694015	7006672018	DF
RECARTE JUANICORENA IBON	72675872	7006662018	DF
TECNICAS DE CHAPA Y CAUCHO SL	B31782642	02/05/2018	RB
VAREZ FISA JOSE LUIS	36283586	02/05/2018	RB

Zutabeko gakoak JM (jakinarazpen mota): CC Banku kontuak bahitzeko eginbideak, SM Lansariak eta soldatak bahitzeko eginbideak, DF Zerga itzulketak eta/edo nafarroako gobernuak aitortutako kredituak bahitzeko eginbideak, CA Kredituak bahitzeko eginbideak, RB Ondasunen eta eskubideen errekerimendua, CF Ordainketa zatikatua onartzea